



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 2513/2022 FORU AGINDUA, abenduaren 12koa, Bizkaia Kirolak Sariak 2023 deialdia egiten duena.

Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b.6 artikuluen arabera, lurralde historikoei dagokie erakunde erkideek kirolaren sustapenaren arloan emandako legeak garatu eta betearazteko eskumena.

Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legeak, ekainaren 11koak, 2.3 artikuluan adierazten duenez, aginte publikoek, beren eskumen-esparruaren barruan, eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatuko dute. Horretarako, burutuko duten kirol politikak printzipio hauek izango ditu oinarrian kirola kultur osagaitzat eta gizarte bateratzaitzat aitortzea.

Kirola interes publikoko gizarte-jarduera da, pertsonak bete-betean prestatzeko eta gartzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizartea ondo izateko lagungarria.

Ildo horretan, Autonomia Estatutuak eta Euskal Herriko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legeak ezarritako eskumenen eremuan, eta, euren zuzeneko jardunaren bidez edo ekimenaren bidez, edo kirol politikaren garapeneko partaide legez, gure lurralde historikoan gorputz eta kirol alorreko jarduera bultzatzen eta sustatzen eginiko lanetan nabarmendu diren pertsonen eta erakundeen aipamen berezia egitea egokia dela uste izanik, Bizkaiko Foru Aldundiak «Bizkaia Kirolak Sariak» sortu zituen 2006an eta, aurreko edizioetan emaitza oso positiboa izan denez, egokitzen jo du «Bizkaia Kirolak Sariak 2023» deitzea ekitaldi honetarako; helburu nagusia, berriro ere, bizitzaren alde handi bat nola edo hala kirolari eman izan diotenei ohorezko saria ematea izango da.

Beraz, kontuan harturik zer eskumen ematen dizkidaten hala Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak nola Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi duen abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak, honako hau.

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra.— «*Bizkaia Kirolak Sariak 2023*» emateko deialdi publikoa onartzea

Foru agindu honen bidez «Bizkaia Kirolak Sariak», 2023 urteko ediziorako deialdi publikoa onesten da, gure lurralde historikoan jarduera fisikoa eta kirola bultzatzen eta sustatzen eginiko lanetan nabarmendu diren pertsonen eta erakundeen aipamen berezia egiteko.

AZKEN XEDAPENA

Azken Xedapen Bakarra.— *Indarrean jartzea*

Foru agindua hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2022ko abenduaren 12an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA

**«BIZKAIA KIROLAK 2023 SARIAK» EMATEKO DEIALDIAREN OINARRIAK****Lehenengoa. — Xedea**

«Bizkaia Kirolak Sariak 2023» emateko deialdiaren helburua da Bizkaiko pertsona fisiko eta juridikoek kirolaren arloan egin duten lana publikoki aitortzea; bigarren oinarriaz zehazten dira sarien kategoriak.

Sariak ohorezkoak izango dira; hau da, ez dute inolako ekarpen ekonomikorik izango. Haien bidez, egindako lana publikoki aitortzen da; horretarako egingo den ekitaldian ikurra emango zaie sarituei.

Bigarrena. — Kategoriak

2023ko edizioan, honako «Bizkaia Kirola Sariak» emango dira:

A) Kirol-merezimendua aitortzeko sariak

1. Izar Gaztea Saria: 2007. urtea baino lehen jaio, Bizkaiko klub baten bitartez eta aurreko kategorietan, absolutuaren azpitik, lehiatzen diren kirolari federatuentzat.
2. Argizagi Saria: maila absolutuan Bizkaiko klub baten bitartez lehiatzen diren kirolari federatuentzat.
3. Iparrizar Saria: maila absolutuaren ondorengo kategorietan Bizkaiko klub baten bitartez lehiatzen diren kirolari federatuentzat.
4. Ostadarra Saria: Bizkaiko klubetan talde federatuei zuzendua.

Sari horietan 2021/2022 edo 2022 denboraldian lortutako emaitzak baloratuko dira.

B) Kirol-ibilbidea aitortzeko sariak

1. Leialtasun Saria: Bizkaiko kirol-erakundeetan zuzendaritza-postuak dituzten edo betetzen aritu diren bizkaitarrei zuzendua.
2. Zuzentasun Saria: Bizkaiko arbitroei zuzendua, lizentzia Bizkaiko Federazio baten bidez izapidetua dutenak.
3. Lidergotasun Saria: Bizkaiko entrenatzaileei zuzendua, lizentzia Bizkaiko federazio baten bidez izapidetua dutenak.
4. Kidetasun Saria: Bizkaiko kirol arloan diharduten Bizkaiko kirol erakundeei zuzendua.

C) Ikuskarritasun Saria

2022an Bizkairako egin den eragin handiko kirol-ekitaldi bat antolatzeke gaitasuna aitortzera bideratua.

Bestalde, sari horiez gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak aipamen bereziak eman ahal izango ditu Bizkaiko kirolean eginiko lana aitortzeko.

Hirugarrena. — Hautatze-sistema

Hautatze-sistema hauze izango da:

- A) Izar Gaztea, Argizagi, Iparrizar eta Ostadarra sarietarako hautagaiak kirol-modalitate, -diziplina edo -proba bakoitzari dagokion federazioak aurkeztu beharko ditu. Federazio bakoitzak gehienez lau (4) hautagaitza aurkeztu ahal izango ditu sari bakoitzerako.

Epaimahaiak, jasotako hautagai-zerrenden artean, gehienez hiru aukeratuko ditu sari bakoitzeko.

Hautatutako hautagaien artean, Bizkaia Kirolak Sarien saridunak zeintzuk diren zehaztuko du.

Hasiera batean sari bakoitzerako aukeratutako hautagaitzak «Bizkaia Kirolak Sariak 2023» banatzeko ekitaldian parte hartzera gonbidatuko dira. Ekitaldi horretan jakinaraziko da zein izan diren «Bizkaia Kirolak Sariak 2023» jaso dutenak.



- B) Edozein pertsona edo erakundek aurkeztu ahal izango ditu hautagaiak Leialtasun, Zuzentasun, Lidergotasun eta Kidetasun sarietan.
Ez da hautagai-zerrenden autoaurkezpena onartuko.
Epaimahaiak, bozketa bakarrean, saria dagokion kategorian izendatuko du.
- C) Epaimahaiak zuzenean aukeratuko du 2022ko jardueraren antolaketa-gaitasunaren Ikusgarritasun Saria.

Laugarrena. — Hautagaitzak aurkeztea

1. Eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa egongo dira esku-ragarri, bertan bete eta izapidetzeko: <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Egoitza elektronikoa bidez eta horretarako prestatutako formularioan aurkezten diren hautagaitzak baino ez dira onartuko.

Merezimendu-zerrendarik gabe edo ibilbidea azaldu gabe jasotzen diren hautagaiak ez dira kontuan hartuko.

2. Hautagai-zerrenda bakoitzeko eskabide bat aurkeztu beharko da.
3. Horretarako epea foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik 2023ko urtarrilaren 20ra arte izango da, egun biak barne.

Bosgarrena. — Epaimahaiaren osaketa

1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Foru Aginduaren 44. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, «Bizkaia Kirolak Sariak 2023» edizioko epaimahaia honakoek osatuko dute:

Epaimahaiburua:

- Lorea Bilbao Ibarra anderea, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirolen foru diputatua.

Epaimahaikideak:

- Miren Arantza Mardaras Izarza anderea, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko burua.
- Asier Intxausti Urionabarrenetxea jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Federatuko atalburua.
- Aingeru Astorkiza Allende jauna, Balonmano Zuazo kirol taldekoa, Bizkaia Bizkaialde Fundazioak izendatua.
- Amaia Piedra Montero anderea, Bilboko Atletismo Santutxu kirol taldekoa, Bizkaia Bizkaialde Fundazioak izendatua.
- Koldo Mendia Cueva jauna, Bizkaiko Kirol Federazioen Elkarteak izendatua.
- Francisco Jose Prieto García jauna, Bizkaiko Kirol Pentsaren Elkarteak izendatua.
- Usue Zatika Elorza anderea, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak izendatua.

Idazkaria:

- Igor Estankona Bilbao jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko foru funtzionarioa, ahotsa izango duena baina botorik ez.

2. Epaimahaiak gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak.

Berdinketa gertatuz gero, presidentearen botoak erabakiko du.

3. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da eta haren aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu.

4. Gerta daiteke saririk ez ematea deialdian edo haren kategoriaren batean, epaimahaiak hala erabakitzen bada.

5. Kategoriaren batean hautagairik jasotzen ez bada, epaimahaiak, hala iritiz gero, finalistak edota saridunak izendatu ahal izango ditu, kategoriari dagokionaren arabera.

6. Halaber, eta bigarren oinarriarekin bat etorriz, epaimahaiak egokitzat jotzen dituen aipamen bereziak ezarri ahal izango ditu.

**Seigarrena.— Sarien zerrenda**

Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko iragarki bidez argitaratuko da «Bizkaia Kirolak Sariak 2023» deialdiko irabazleen zerrenda eta, hala denean, aipamen bereziena ere.

Zazpigarrena.— Konfidentzialtasuna eta datuen babesa

Bizkaia Kirolak 2023 Sarien deialdia egiten duen Foru Agindu honen ondoriozko datu pertsonalen tratamenduek Datuak Babesteko 2016/679 Europako Erregelamenduan eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzen dute. Datu pertsonalak ez dira inola ere erabiliko ukitutako pertsonak berariaz baimendutakoez bestelako erabileretarako, ezta aplikatu beharreko legeriak baimentzen ez dituen tratamenduak edo hirugarrenei lagapenak egiteko ere; nolahi ere, aplikatu beharreko legeriak eskatzen dituen segurtasun-neurriak hartzeko konpromisoa hartuko da.

Araudi horretan xedatutakoa betez, interesdunak tratamenduaren arduradunaren aurrean baliatu ahal izango ditu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko («ahazteko eskubidea»), tratamendua mugatzeko eta tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabakia ez hartzeko eskubideak, profilak egitea barne. Halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Kontrol Agintaritzan erreklamazio bat aurkezteko.

Kirol Zerbitzuak Bizkaia Kirolak sarietarako hautagaitzak kudeatzeko erabiliko ditu datuak. Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio gehigarria eskuragarri dago Kirol Zerbitzuaren Tratamendu Jardueren Erregistroan (Kirol Zerbitzuaren Euskara, Kultura eta Kirol Saila), Bizkaiko Foru Aldundiaren webguneko Datu pertsonalen babesa atalean: <https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos>